

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2024ko uztailak 19 · 1322 zenbakia

TURISMOA SASOIAN SASOIKOA



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikak

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta iritsi
gure webgunea



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2-2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com



ESPAZIO GEHIAGO MEREZI DUZULAKO

ARRATE HOMES • EIBAR

Erreal plaza ondoko
eraikuntza berriko etxebizitzak.
Garajea • Gimnasioa
Gourmet aretoa • Trastelekua

Zatuz Neinor Store-ia
Bidebarrieta Kalea 6, Eibar

ETA EZAGUTU GURE PROMOZIO BERRIAK

* Bortxutatu lege-oinarritik

Neinor HOMES

900 11 00 22 • neinorhomes.com

LUXUZKO ASTEBURUA GASTEIZEN ...eta kitto!-ren eskutik



**BOLETOAK
SALGAI**
kalean eta
honako
leketan:

eta kitto!

Sagardo eguneko SARIA Urriaren 26tik 27ra

Sagardo eguneko SARIA

Prezioa: 1€
Zbk: 1€

Prezioa: 1€ Zbk: 1€

eta kitto!
WARRIOR WARRIOR

ZOKKETA
SAGARDO EGUNEN
egingo du **(urriaren 26)**
kalean, 1. eta 2. solairuetan.

Zozketa Sagardo Egunean egingo da, urriaren 5ean

Babeslea:

INDUSTRIAS PAMPO
www.industriaspampo.com

- HOTEL SILKEN CIUDAD DE VITORIA (Gasteiz)
2 laguntzako gaua+armosua (urriaren 26tik 27ra)

- 2 laguntzako afaria (menu berezia) Gasteizko EL PORTALON jatetxean (urriaren 26an)

- BISITA GIDATUA Santa Maria katedralera eta Andra Mari Zuriaren dorrera + Degustazio menua ANDERE jatetxean (urriaren 27an)

ISASI okindegia
ZABALETA okindegia
IZADI loradenda
UNTZAGA prentsa
MARIA OSPITAL
KULTU taberna
BOLINTXO okindegia
MUGIKA harategia
OTEGUI harategia
ZUBI GAIN taberna
GURIDI taberna

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eibarko Udako Aukeren Azoka Toribio Etxebarria kalean egon da aurten ere. Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) eta Eibarko Udalak elkarlanean antolatutako azokan 26 establezimenduk hartu dute parte, eta baita ...eta kitto! Euskara Elkarteak ere.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Indalecio Ojanguren

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Hortik esanak



Sukaldari euskaldunaren bila gabiltza

Eibarko Klub Deportiboan gure ehugarren urtemuga ospatzen jarraitzen dugu. Makina bat ekintza antolatu ditugu gure iraganari begira, oraina eta etorkizuna ahaztu barik.

Aurten 70 urte betetzen dira Torbio Etxebarria kaleko lokala erosi genuenetik. Eibartar gehienek bertan ezagutu dute betidanik Kluba, baina lehenago Errebalen, Isasin eta Tupi tabernaren lehen pisuan, Marianekuan, egon ginen.

Ekainaren 27an ez-ohiko asanbladan aho-batez onartu genuen gure lokalaren azpian dagoen tabernaren erosketa. Klubaren ikusgarritasunerako eta soziazibilizatorako pauso moduan ikusten dugu.

Lokal berri honetan taberna eta jatetxea nahi dugu mar-txan jarri. Proiektu berezia nahi dugu landu, Klubarentzat eta herriarentzat ona izango dena. Eta bertan jardungo duten langile euskaldunen bila gabiltza. Tabernari-lanetan jardungo duten pertsona batzuekin hitz egin dugu jada, baina sukaldean lana egingo duten pertsonen bila gabiltza.

Sukaldean egiten dakien pertsona euskalduna bazara eta proiektu berezi honetan lana egin nahi baduzu, pasa zaitez Deporren lokaletik eta Ander gure konserjearekin hitz egin, edota deitu 943-201904 telefonora. Bestela, 665 726 146 mobilera (Iñaki) ere deitu dezakezu.

Eibarko Klub Deportiboa

Ikasturteko azken alea

Eskuartearen duzuen ale hau ikasturteko azkena izango da. Betiko lez, Arrateko Jaien aurretik izango gaituzue zuen buzoietan: **irailaren 6an kaleratuko dugu hurrengoa**. Ondo pasa bitartean!

Erredakzioa

Laura Garridok, PPren izenean, Eusko Jaurlaritzari exijituko omen dio Osakidetzan dagoen mediku eskasiaren arazoa bideratzeko, euskara ezagutzaren eskakizuna salbuetsi dadin. Osasuna baita garrantzitsuena. Ni ere bat nator Garridorekin. Baldin eta espainiera ere salbuesten bada. Ederki etor liteke gugana, soilik euskaraz eta frantsesez dakien Baigorriko medikua edo bakarrik urdueraz eta ingelesez moldatzen den zirujau indiarra. Pradales jauna, hortxe duzu gure Osakidetza kaskatua bideratzeko aukera. Antolamendu onez eta aurrekontu egokiez hornituta noski, baina hori ez omen da horren garrantzitsua. Mamadou Sarr senegaldarra euskaraz natural hitz egiten entzun dut Euskal Telebistan: Garridok baino hobeto, eta zer esanik ez Iturgaitzez. Zurgina da. Osakidetzan behar badira, aurkez liteke.

JOSE IGNAZIO ANSORENA, musikaria

Hil ala bizikoa bihurtu dute Ukrainako guda hau, eta galtzailea desagertu egingo da. Errusiak galtzen badu, bere baitan sendo txertatuta dauden nazio eta errepublikak puzzle baten piezak bezala sakabanatuko dira. NATOk galtzen badu, desagertu egingo da eta Europako Batasunaren politika eta politikariak goitik behera aldatuko dira. Ukrainako guda hau existentziala bihurtu da bi aldeentzat. Hainbatek dio Errusiak egunen batean erantzun handia eman dezan bilatzen duela Bidenek, hauteskundeak bertan behera utzi eta presidente jarrai ahal izan dezan, Zelenskik egin bezala.

JOAN MARI BELOKI, erretiratu

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PARAU → Ipiñi, jarri. "Nun parauko dogu Bartolo guria?"

PARE → Bezala, moduan. "Zoruen pare gabiz nora jua ez dakigula".

Farmaziak

BARIXAKUA 19
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ZAPATUA 20
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
DOMEKA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 22
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 23
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
EGUAZTENA 24
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUENA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
BARIXAKUA 26
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 29
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 30
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 31
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 1
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
BARIXAKUA 2
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 3
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 4
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 6
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUAZTENA 7
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
EGUENA 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
BARIXAKUA 9
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 10
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 11
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 12
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)

MARTITZENA 13
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUAZTENA 14
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
BARIXAKUA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 17
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 19
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 20
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUAZTENA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUENA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
BARIXAKUA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 27
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 28
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 29
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
BARIXAKUA 30
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 31
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
DOMEKA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 2
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 3
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUAZTENA 4
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 5
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
BARIXAKUA 6
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI:
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Amjad Iqbal.** 47 urte. 2024-07-09.
- **Cipriano Fernandez Lezcano.** 94 urte. 2024-07-11.
- **Karmentxu Altuna Garmendia.** 53 urte. 2024-07-12.
- **Juan Antonio Mendes Martinez.** 77 urte. 2024-07-13.
- **Dionisio Fernandez Trapote.** 67 urte. 2024-07-15.
- **Jorge Arizmendiarieta Urizar.** 62 urte. 2024-07-17.





Idurre Iriondo

UDAKO ORDUTEGIAK

Udaletxea (Untzaga, 1)

• Udal Sailak

- Astelehenetik barixakura (08:30-13:30)
- Itxita: uztailak 25 eta 31, abuztuak 15 eta 16

PEGORA Bulegoa

- Astelehenetik barixakura (08:30-13:30)
- Telefono bidezko arreta (08:00-14:00)
- Itxita: uztailak 25 eta 31, abuztuak 15 eta 16

KIROL INSTALAZIOAK

Ipurua

- Astelehenetik barixakura (07:30-22:00)
- Zapatuetak (09:00-13:00/16:00-20:00)
- Domekak/Jaiegunak (09:00-13:00)

Unbea

- Astelehenetik barixakura (10:00-22:00)
- Zapatuetan (09:00-20:00)
- Domekak/Jaiegunak (09:00-20:00)

Orbea

- Astelehenetik barixakura (07:30-21:30)
- Zapatuetan (09:00-14:00/17:00-20:00)
- Domekak/Jaiegunak (09:00-14:00)

KANPOKO IGERILEKUAK

- Uztailaren 31ra arte (10:00-20:30)
- Abuztuan eta iraileko bi aste (10:00-20:00)

Portalea (Bista Eder, 10)

UZTAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-20:30)

ABUZTUA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)

IRAILA:

- 2tik 6ra: astelehenetik barixakura (09:00-20:30)
- 9tik 30ra: astelehenetik barixakura (09:00-21:30)
- Zabalik azken bi asteburuetan: 21ean eta 28an (10:00-13:30/16:00-21:00) 22an eta 29an (10:00-13:00/16:00-21:00)

Juan San Martin Liburutegia

UZTAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30/16:30-19:30)

ABUZTUA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)
- 5etik 14ra, ikasgela bakarrik zabalik

IRAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30/16:00-20:30)
- 21/22 eta 28/29 asteburuetan, ikasgela bakarrik zabalik (10:00-13:00/16:00-20:00)

Euskara Zerbitzua

UZTAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)

ABUZTUA:

- 5etik 23ra itxita

IRAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:00)

Armagintzaren Museoa

UZTAILA:

- Martitzenetik barixakura (16:00-20:00)

ABUZTUA:

- Martitzenetik barixakura (10:00-13:50)

IRAILA:

- Martitzenetik barixakura (16:00-20:00)

Gizartekintza

UZTAILA, ABUZTUA ETA IRAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:00)

Euskararen erabilera sustatzen egon da ...eta kitto! Udako Aukeren Azokan

Atzo amaitu zen Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatutako Udako Aukeren Azoka eta, oraingoan ere, bertan parte hartzen egon da ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Euskeraz Primeran! egitasmoarekin. Azokako hiru egunetan ipini duten mahaira gerturatu direnek kristalezko ontzi batzuk koloretako harriekin bete dituzte, euskararekiko hartu duten konpromisoaren arabera. Horrela, euskara elkarteak kideek herritarrak jarduera komertzialetan, hau da, dendetan eta tabernetan euskara erabiltzera animatu nahi izan dituzte. Parte hartu duten guztiei kanpainako poltsa oparitu diete, eta, horrez gain, atzo zozketa egin zuten, EMGI-ren 100 euroko erosketa-txartela emateko eta irabazlea Begoña Basauri izan zen. Zorionak!





eskolara buelta!

elite

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS

ISASI kalea, 29

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es

Eskola-materiala,
papertegia, motxilak,
idazmahaiak, aulkiak...

Rexcatering, janari soberakinak murrizteko vending makina

Ego Gain egoitzaren kanpoan Rexcatering makina jarri dute; bertan, JA Mogel ikastolako eta zaharren egoitzako jantokietako soberakinak doan hartu daitezke. Horren bitartez, jantokietako soberakinak berreskuratuz, beharrak dituztenei elikagaiak eskuratzeko aukera emateaz gain, hondakinak murriztu nahi dira.

Rexcatering proiektuan, aipatutako bi zentroz gain, Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Zero Zabor Fundazioak hartu dute parte eta, joan den astean eskaini zuten prentsaurrekoan adierazi zutenenez, “proiektu aitzindaria da”.

Proiektu hori abiarazteko, Debarreneko Mankomunitateak, Zero Zabor Fundazioaren bitartez, elikagai xahuketaren gaineko azterketa sakona egin zuen Debarreneko hiru jangela kolektibotan, hain zuzen ere, Mendaroko Ospitaleko eta Eibarko J.A. Mogel Ikastolako eta Egogain Zentroko jangeletan. “Lortutako datuek erakusten dute, jangela kolektiboetan jakirik soberan ez geratzeko ahalegin handia eginda ere, ezinezkoa dela soberakinik ez egotea”, aipatu zuten prentsaurrekoan.

Doan edonorentzat

Rexcatering makina Ego Gain egoitzaren kanpoaldean dago kokatuta, Legarreko frontoiaren alboan. Bertan, egunero Iturburun eta Ego Gainen jasotako elikagaiak jarriko dituzte eta edonork doan hartu ahal izango du bertan eskaintzen dena.

Teknologiarik onena erabiltzen dute janaria ondo egoteko eta ontzietan agertzen den etiketan elikagaien inguruko informazio zehatza eskaintzen da.

Hondakinak murriztu

Gaur egun 24 zentrok hartzen dute parte Rexcatering proiektuan eta, beste denak ikastetxeak izanik, Ego



Makina honetan eskuratu daitezke janariak. EKHI BELAR

Gain da egoitza bakarra. “Urriari 34 zentro izatea espero dugu”, azaldu zuten Zero Zabor Fundaziokoek.

Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako lehen diputatu nagusiordeak adierazi zuenez, elikagaiei dagokienez, Gipuzkoan 120.000 tonelada inguru galtzen ditugu eta, era berean, 20.000 lagunek jotzen dute Elikagaien Bankura eta antzeko egitasmoetara: “Gainera, hondakinen %50 organikoak dira eta horiek, zabortegietara bidaltzean, metano bihurtzen dira, horrek dakarren kutsadurarekin”.

Makinak nola
funtzionatzen du?





Palestinan gertatzen ari dena salatze kontzentrazioa

Eibar Palestinarekin eta Gerrarik Ez elkarrekin mobilizazioa deitu dute gaurko, 19:30ean Untzagan, Palestinan gertatzen ari den sarraskia salatze. Deialdiarekin batera zabaldu duten mezuarekin ("Palestina ahaztu bazara, gogoratu: Genozidioak jarraitzen du") herritarren kontzientziak astindu nahi izan dituzte, urriaz geroztik palestinarren kontra egunero gertatzen ari diren erasoekin ahaztu ez gaitzen.



Eibarren egindako 60 Lambretta elkartu zituzten asteburuan egindako topaketan

Eibarko Lambretta Klubaren esku-tik, Lambretta Eibar XIX. Topaketa egin zen asteburuan. Eibartarrekin batera, inguruko herrietatik eta urrunagotik (Asturiastik, Burgostik, Kataluniatik, Valentziatik...) etorritakoek hartu zuten parte urteroko hitzorduan, eta guztira 60 bat Lambretta elkartu zituzten. Eibarren 60. hamarkadan fabri-

katutako motozikletak Untzaga plazan erakustez gain, errepide-rra ere atera zituzten, Eibarko kaleetan kalejira egiteko. Zapatuan zein domekan egindako irteeretan 250 bat kilometro egin zituzten guztira, eta askok gozatu ere egin zuten, Lambretten motorrak berriz martxan entzutean sasoi bateko uneak gogoratzen.

ABUZTUAN GOIZEZ ZABALIK
08:30-13:30
MUGIKA
Harategia - Urdaitegia
Carniceria - Charcuteria

Baserriko Haragia

Urkizu, 18 943120194

EIBARKO KLUB DEPORTIBOA

Eibarko Klub Deportiboan SUKALDARI EUSKALDUN

baten bila gabiltza urritik aurrera martxan jarriko dugun taberna eta jatetxean plater goxo-goxoak prestatu ditzan.

Interesa baduzu, pasa Deporretik eta Anderrekin hitz egin edota 943-201904 zenbakira deitu (17:30-21:30). Bestela, 665-726146 zenbakira (Iñaki).

Eibarko paisaia linguistikoa euskaratzeko dirulaguntzak



Merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzu batzuk eskaintzen dituzten establezimenduen kanpoko eta barruko errotulazioa euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik dirulaguntzak ematen ditu Eibarko Udaleko Euskara sailak. Eta ez hori bakarrik, irudi korporatiboko elementuetan eta dokumentuetan euskara erabiltzeagatik ere ematen zaie laguntza ekonomikoa Eibarko establezimenduei.

Bideoa ikusteko



Errotuluak, inskripzio finkoak eta irudi korporatiboko elementuak euskaraz edo ele bitan jartzeko dirulaguntza jasotzeko epea dagoeneko zabalik dago, eta azaroaren 15era arte egongo da eskaera aurkezteko aukera. 2023ko azaroaren 14tik 2024ko azaroaren 15era egindako gastuak hartuko dira kontuan, hau da, urte natural osoa. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direnean errotuluan edo irudi korporatiboan, euskararen presentzia gutxienez gaztelaniaren parekoa izan beharko da.

Patxi Lejardi Udaleko Euskara saileko buruak eta Junkal Txurruka euskara teknikariak esan digutenez, "Udala 2019an hasi zen dirulaguntza hori ematen, eta helburua da Eibarko merkataritzan, ostalaritzan eta kaleko paisaia linguistikoa pribatu horretan euskararen presentzia handitzea. Pertsona batek negozio bat ireki behar duenean, edo bere establezimendua berritu behar duenean, momen-

tu egokia da, alde batetik, gauzak ondo egiteko. Eibarko errotuluen ordenantzak dio jartzen diren errotuluak euskaraz edo ele bitan egon behar direla. Askotan hori ez da betetzen, eta dirulaguntza honen bitartez modu positiboan lagundu nahi da hori betearazten".

Dirulaguntza ez da errotulu nagusi hori euskaraz ipintzeko bakarrik. Badago "errotulazio finkoa" deitzen dena ere: denda askok, adibidez, biniloak jartzen dituzte eskaparateetan, eta establezimendu barruetan indikadore batzuk egoten dira (irteera, sarrera, komuna...). Horiek euskaraz jartzeagatik ere diruz laguntzen dugu", diote.

Esandako moduan, badago hirugarren jarduera bat kontuan hartzen dena dirulaguntzak bantzeko: irudi korporatiboko elementuak euskaraz edo ele bitan jartzea, hain zuzen ere. Hor sartzen dira bezeroari ematen zaizkion poltsak, biltzeko papera, laneko jantziak, furgonetetan jartzen



Errotuluak, inskripzio finakoak eta irudi korporatiboko elementuak euskaraz edo ele bitan jartzeagatik dirulaguntzak ematen ditu Eibarko Udaleko Euskara sailak. ANAAIZPURUA

diren testuak, papeleria (sobreak, txartelak, karpetak, bisita-txartelak, zigiluak...). Tabernen kasuan, askotan mantelak izaten dituzte euren izenarekin edo menu-kartak, eta horiek ere sartzen dira.

Establezimenduek baldintza hauek bete behar dituzte laguntza jaso ahal izateko: Eibarren kokatua egotea eta jarduera-baimena izatea, eta, kanpoko errotulu nagusien kasuan, baimena izatea errotulu hori kanpoan jartzeko. Eskaera elektronikoki egin behar da, Eibarko Udalaren webgunean, "dirulaguntzak" atalean.

Errotulu nagusia euskaraz edo ele bitan jartzeagatik ematen den laguntza gastuaren %40 da, 300 euroko topearekin. Kanpoko eta barruko inskripzio finkoen kasuan ere %40 laguntzen da diruz, eta hori ere 300 euroko topea dago.

Irudi korporatiboko elementuak euskaraz edo ele bitan jartzeagatik, berriz, dirulaguntza %20koa da, gehienez 150 eurora arte.

Euskara sailetik Eibarko kaleetan edozein motako establezimendua duen jendea animatu nahi dute (tabernak, dendak, bulegoak, aholkularitzak, elkarteak, autonomoak, industria arlokoak...) eskaera egitera. "4.500 euro egoten dira partida horretan, eta, egia esan, ez da diru-poltsa osoa gastatzen. Urte hauetan 17 eskaera egon dira eta konturatzen gara jendearengana ez garela iristen, edo jendeak ez dakiela. Negozio berria irekitzeko baimen bila Pegorara gerturatzen direnean, informazioa jaso dezakete, edo bestela gurekin zuzenean harremanetan jarri".

Edonola ere, azpimarratu nahi dute dirulaguntza hori ez dela soilik negozio berrientzako. Izan ere, "askotan zure negozioa berri egin behar duzu, edo errotuluak aldatu egin behar dira zaharkituta daudelako... Beraz, aprobetxatu aukera hori eta jarri euskara hutsean edo ele bitan", esan digute Euskara saileko arduradunek.

"Helburua da Eibarko merkataritzan, ostalaritzan eta kaleko paisaia linguistiko pribatu horretan euskararen presentzia handitzea"

Egindako gastuaren %40ra arteko dirulaguntzak ematen ditu Eibarko euskara sailak

Jaiak eztanda egingo du Debabarrenean

Sanjuanak joan zaizkigu, baita auzoetako beste jai batzuk ere, baina horrek ez du esan nahi festarako aukerarik edukiko ez dugunik. Debabarreneko herri guztietan jaiak ospatuko dira uztailaren amaieran eta abuztuan zehar eta, herritik irten nahi ez dutenek ere ospatzeko aukera izango dute Azitaingo Andra Mari jaietan. Iritsi da festa sasoa!



Gaurtik izango dugu Debabarreneko beste herrietako jaietz gozatzen hasteko aukera. Ermura joatea besterik ez dugu, astebururako hainbat ekintza antolatu baitituzte. Horrela, gaur, 23:00etan, Maria Pelae abeslariak kontzertua eskainiko du San Pelaio plazan. Biharko egunean zehar kirol txapelketak, erakusketa-txakurren lehiaketa, Urkora igoera, mus txapelketa, euskal dantza emanaldia eta DJ festa egingo dira, 23:00etan En Tol Sarmiento taldeak kontzertua eskaini arte.

Domekan eta astelehenean ere zenbait ekintza egingo dira. Hala nola, domekan musika eta dantza jaialdian Brasil eta Hungariako doinuak eskainiko dira, eta astelehenean playback lehiaketa ospetsua hasiko da. Martitzenean, bestalde, umeen eguna izango denez, haurrei zuzenduriko ekintzak egingo dira egun osoan zehar.

Santixauak, ofizialki, hilaren 24an hasiko dira. 19:00etan, txupinazoa botako dute eta ohiko kalejira egingo da. 22:00etatik 03:00etara, Martxoak 8 plazan, techno jaialdia egingo da, eta Vulkano Show orkestraren jaialdia eskainiko dute 23:00etatik aurrera.

Hurrengo egunean, 25ean, haurrentzako parkea jarriko dute eta eguerdian herri-kirol ikuskizuna egingo da. Arratsaldean eta gauean



Aurreko orrialdean, Danborrada Mutrikuko Malen jaietan. MUTRIKUKO UDALA.
Goian, datorren astean ospatuko dira Santixauak Ermuan. ERMUKO UDALA

pilota partiduak, erraldoiak eta buruhandiak, Joselontxos txarangarekin kalejira, larraindantza, euskararen aldeko konpromiso-topa, zirko kale ikuskizuna eta dantzaldia egongo dira.

Hilaren 26a aurreko eguneko egitarauaren partetik joango da. Txirri, Mirri eta Txiribitonen ikuskizuna, mariatxien emanaldia eta gauetan egingo den Rock Jaialdia nabarmendu daitezke.

Jaien azken eguna 27an ospatuko dute, ohiko paella lehiaketarekin. Horrez gain, egunean zehar ekintza ugari egingo dira eta haurrentzako parkeak jarriko dituzte.

Santa Ana jaiak Mendaron

Mendaron bihar hasiko dira Santa Ana jaiak, Gazteen Egunarekin. Horrela, goizean frontenis txapelketako finala jokatu ondoren, gazte bazkaria eta jolasak egingo dira frontoian.

19:00etan Elektrotxufa elektrotxaranga egongo da, 23:00etan Añubek kontzertua eskainiko du eta, ondoren, Tatta&Denso eta DJ Txola eta Potxola egongo dira.

Domekan Nagusien Eguna izango da eta, 12:00etako mezaren ondoren, nagusiei omenaldia egingo zaie. Gero euskal dantzak egingo dira. 14:30ean nagusien bazkaria egingo da eta DJ Arnok dantzaldia eskainiko du.

Hilaren 24a Txupinazoaren Eguna izango da. Jaiak 19:00etan egingo du eztanda, txupinazoarekin eta Katasorginaren jaisierarekin. Aipatzekoa da 23:00etan Akerbeltz taldeak kontzertua eskainiko duela.

Santixago Egunean, 25ean, umeentzako puzgarriak jarriko dituzte, Elgoibarko Musika Bandak joko du, Verdini dantza taldearen ikuskizuna egongo da, baita kale-antzerkia ere

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEBORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Enkarguak etxera

tartak
enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
943 20 79 73



eta, nagusien danborradaren ondoren, Eibar-ko Lisker taldeak kontzertua eskainiko du.

Santa Ana egunean, 26an, eguerdian, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak egongo dira, eta 18:00etan herri-kirol jaialdia hasiko da. 19:30ean, Beranduegi taldeak kontzertua eskainiko du.

Kuadrillen Eguna ospatuko da 27an. Eguerdian paella lehiaketa egingo da eta, gero, kuadrilla 'txapeldunen' bazkaria. Elektrotxaranga-aren eta playback lehiaketaren ondoren, Rebel Boys eta Eibarko Mugi Panderoak kontzertua eskainiko dute.

Jaiak Umeen Eguna erekin amaituko dira, 27an. Goizetik txirrista erraldoiak eta puzgariak jarriko dituzte, eta eguerdian haur bazkaria eta jolasak egingo dira. 18:00etan haurren danborrada egingo da, gero buruhandiak eta erraldioen kalejira egingo da, 21:00etan Oskarbak kontzertua eskainiko du eta 22:00etan Katasorgina igoko dute.

Mutrikun ere bihartik aurrera

Gazte Eguna emango die hasiera bihar Mutrikuko Malen jaiei. 12:30ean txupina botako dute eta jolasak egingo dira. 15:00etan, bazkaria egingo da txosnagunean, eta bazkalostean bingo musikatua egongo da. Txosnak 20:00etan irekiko dituzte eta Afrika Bibangek kontzertua eskainiko du 22:30ean.

Jaiak berez domekan hasiko dira, 18:00etan botako baitute Malen jaien txupinazoa. Ondoren, kalejiren eta dantzen ondoren, 20:00etan danborradaren txanda iritsiko da. Eguna Oihan Vega disko-festarekin eta playback lehiaketarekin amaituko da.

Malen Egunerako, 22rako, egun osoko egitaraua prestatu dute. Musika Bandak bi saio eskainiko ditu, haur-parkea egongo da goiz eta arratsalde, sokamuturra egongo da, baita herri-kirolak ere, eta Desgaraian, Puro Relajo eta Mugi Panderoa taldeek kontzertua eskainiko dute. Tartean, 23:00etan, su artifizialak botako dituzte.

Hilaren 23a Txiki Eguna izango da eta haur-errentzako ekintzak antolatuko dituzte: marrazki lehiaketa, erraldoiak eta buruhandiak, zirko ikuskizuna, umeen danborrada eta disko-festa, besteak beste.

Eguaztena Kuadrilla Eguna izango da eta, haur-parkeajartzeaz gain, trikipoteoa, sokamuturra eta erromeria egingo dira. 22:30ean, bes-
talde, Bulego taldeak kontzertua eskainiko du.

Jaiekin amaitzeko, Santixo Eguna ospatuko dute 25ean. Goizean pintura lehiaketa egingo da eta eguerdian txakolin dastaketa. 19:00etan Amets Arzallus, Alaia Martin eta Ane Labakak bertso-saioa eskainiko dute.

Uztailaren amaiera festaz beterik dator Debabarrenean. Abuztuan, Azitaingo Andra Mariko jaiez gain, Deban, Mallabian eta Elgoibarren jaiak ospatuko dira



Soraluzeko jaiak

Hilaren 24an hasiko dira Soraluzeko jaiak. 19:00etan egingo den kanoikadak emango die hasiera jaiari, baina aurretik hainbat ekintza egingo dira. Gero, 23:00etan, Tapia eta Leturia Band-ek kontzertua emango du Plaza Zaharrean, eta ordu berean Malko, Zentru Okerrak eta Kaparrak taldeak Zubi Nagusian izango dira.

Egunean, Santiago Egunean, goizetik gauerako egitaraua prestatu dute. Besteak beste, artisauen azoka, gazten dastaketa, erraldioak eta kilikiak, herri bazkaria, haurrentzako musika eta dantza ikuskizuna, kontzertuak (Sheldon's Brothers eta Fan&Go), danborrada eta diskofesta (Oihan Vega) egingo dira.

Hilaren 26an Santa Ana eguna ospatuko dute. Egunean zehar puzgarriak jarriko dituzte frontoian, zezenak egingo dira goizean eta arratsaldean (eta suzko zezena), larraindantza, eta DJ Tititpuntik eta Zopilotes Txirriaos taldeak musika jarriko dute.

Jaiak 27an amaituko dira, baina egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako. Aipatzekoa da 22:30ean Goxua'n Salsa taldeak kontzertua eskainiko duela.



Aurreko orrialdean: erraldioak Soraluzeko jaietan. Orri honetan: goitik behera, Mendaroko eta Elgoibarko jaietako irudiak.

leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

PUBLI RESA
ediziora publikitariora

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Amagin, 3-5 behea

Turismoa: udalditik haratagoko jauzia

Bigarren ikasturtea da Ikasten-en eskutik hitzaldi-zikloa eskaintzen dutena Debako Kultur Elkartearen. Aurtengo bost saio horietatik laugarrena herenegun aurkeztu zuen Jesus Gutierrez Eibarko historialariak. "Historia del veraneo en Euskadi. Deba y la importancia del turismo" landu zuen bertan. Hori aprobetxatuz, berarekin izan ginen astelehenean historia erreparatu eta gaur egungo turismoaren inguruan jarduteko.

Turismoa ez da gaur egungo asmakizuna, aspalditik datorren eta dagoeneko ohitura bihurtu den aisialdia probesteko beste modu bat baizik. Baina horretan ere badirudi Euskal Herria aitzindaria izan zela, Gutierrezen hitzetan: "XIX. erdialdean osasunerako ur-bainuen abantailak ezagutzen hasi ziren eta, iraultzaren ondoren, Ingalaterrako aberatsak honuntza hasi ziren etortzen. Sare antzerakoa osatu zuten Urberuaga, Lekeitio, Altzola, Aretxabaleta edota Markinakoekin".

Eugenia de Montijo Napoleon III. aren emaztea ere "gaur egun oraindik funtzionatzen duten Miarritzeko balnearioak hasi zen bisitatzen". XIX. erdialde horretan hasi zen Donostiara etortzen baita Isabel II.a Espainiako erregina ere. Eta berrari jarraituko zion, ondoren, Maria Cristina Alfontso XII. erregearen emazteak, "42 urtetan, kale pasatu zituenak, 1878tik 1929ra arte, lehenengo Aieteko jauregian eta Miramar-en gero". 1887an, gainera, gaur egun udaletxea dagoen Gran

Casino Kursaal eraiki zuten. XX. mendearen hasiera horietan argitu zen bereziki Belle Epoque bezala bataiatutako sasoiak. Niza, Miarritze eta beste balneario-hiriei jarraituz, han hasi ziren biltzen estatuko goikarguak, aristokrata eta bestelako dirudunekin batera.

Gutierrezek dioenez, "sare horretan sartzen zirenak ez ziren hiru egunetarako etortzen, hiru hilabeterako baizik. Horregatik antolatzen ziren ordurako Lasarteko automobil probak, hipodromokoak, Gudamendiko plater tiroak... Euskarazko hainbat



Debako hondartza 1917an. Orain dela mende bat jendea erropa gehiagorekin egoten zen. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO "GURE GIPUZKOA".

>>> Euskal Herria aitzindaria izan zen, XIX. erdialdean osasun-abantailak eskaintzen zituzten ur-bainuei esker



Jesus Gutierrez historialariak hitzaldia eskaini zuen eguaztenean Deban.

ekitaldirekin batera; hor hartu zuten indarra euskal-jokoek, eta 1879an egiten hasi ziren Kontxako estropadak, batez ere udaldia luzatu eta iraila ere hartzeko".

1912koa urte garrantzitsua izan zen, urte horretan inauguratu baitziren La Perlako balneario berria, Maria Cristina hotela, Victoria Eugenia teatroa eta Igeldoko funikularra, hor bueltan eraiki zen Paseo Berriarekin batera. Donostia borbor zegoen eta turistak -orduan forasteroak deituak- nonahi ikusten ziren. Sasoi hartako kronikek diotenez, "bertako 60.000 biztanleei kanpoko beste 30.000 batzen zitzaizkien" eta horren eragina gaur egungoa baino handiagoa zela ere badiote, "proporzionalki behintzat; baina orduan deserotasuna baztertu eta aukera bezala onartzen zuten".

Debako berezitasunak

Debako kasuan, kostaldeko herria izanik, "Mesetatik honako irteera naturala izan zen hango produktuak kanpora ateratzeko, artilea dela eta horrelakoetarako", diosku Jesusék. "Ez dugu ahaztu behar sasoi hartan ferreriek eta burdinolek hemen zuten pisua eta indarra".

Burgosetik Gasteizeraino lehenengo eta, gero, hemendik kanpora, bi norabide hartzen zituzten produktu horiek: "Batzuk Cadiz eta Sevillarako bidea hartzen zuten, beste batzuk Herbeheretara bidaltzeko, orduan Espainiako koloniak baitziren".

Urberuaga, Zestoa eta Altzola ohitzen joan ziren bisitak jasotzera, baina XIX. mende erditik 1920ra arteko eskaintza ia berdina izan zela dio historialariak: "Lasao edo Santa Katalinatik buelta batzuk eman. Gero hasi zen zertxobait mugitzen". Debako portua indarra joan zen galten, udaldiaren mesederako. XX. mende hasierarako hasi ziren Espainia barnekoak etortzen, batez ere Madrildik. Turismoaren garapen horrek 1970. hamarkadaraino iraun zuen, gero krisi antzerkoko bizi izan zuen, eta beste jauzi bat izan zuen behin XXI. mendean sartuta.

Madril eta Debaren artekoa aspalditik dator. Hasieran debarrek euren etxeak alokatzen zizkieten, hauek familietako baserrietara joaten ziren bitartean. Udatiar dirudunek Toledo Enea bezalako etxaldea egin zituzten. Miramar, Monreal, Deva, Celaya, Egaña eta Iriondo moduko hotelak zabaldu ziren. Eta hon-

dartzan toldo eta kasetaz zerbitzuak ezarri ziren, Urasandi familiak kudeatuta. Guzti horri lotuta, Jesus Gutierrezek dioenez, "lehen etortzen zirenek, arbasoak Madrilén, Zaragozan edo Iruñean dituztenek, oraindik etortzen jarraitzen dute". Eta Cardenasen figura ere gogoratu du, "herriaren seme adoptiboa bihurtutakoa eta hainbat lehiaketa antolatzen dituen fundazio publikoa duena bere izenarekin".

XX. mendeko sasoi ezberdinak

Mende hasieran turismoak gure inguruan hartu zuen indarraren ezaugarritzak jo dezakegu Arastoteak eurak ere Donostian goi mailan ospatzen zirela, Nizakoekin parekatuz. Orduko kronikek diotenez, "otsaila abuztua balitz bizi zen, eta orduan egiten ziren abiazio-proba akrobatikoak badian".

Urrezko Aro horrek 1924ra arte iraun zuen, Primo de Riverak jokoa debekatu eta Kasino bere ateak ixtera behartu zuen arte. Gerra Zibilaren ondoren, Espainiako estatua autarkia bihurtu zela dio Gutierrezek, "produktuak kanporatzeko ezintasunarekin. Egoera hori aldatzen joan zen gutxinaka: lehenengo 1950ean

Eisenhower AEB-etako presidentek hona egindako bisitarekin, ba-seak hemen ezarri eta Francori pixka bat esku zabaltzea gomendatu zionean. Opu-seko teknokratek ere beste jauzi bat ere ekarri zuten arlo horretan, 1959ko Garapen Plana abiatu zutenean". 1960.etik aurrera Andaluzia eta Levanteko turismoa sustatu zen batez ere.

Francok, bere aldetik, Espainiako politikako eliteen bidetik jo zuen eta, 1940tik 1975era arte, Aieteko jauregian pasatu zituen bere udaldiak. Javier Sada Donostiako kronikalariak dioenez, "guztira 699 gau pasatu zituen Donostian, 28 ministro-kontseilu egin zituen bertan eta abuztuaren 14ko Salbearen buru izan zen 17 aldiz". Gutierrezek zehazten duenez, "1973an izan zen Donostian azken aldiz, 1974an eta 1975ean ez zelako etorri. Juan Carlos errege emeritok Mallorcarako bidea hartu zuen, eta berarekin batera beste izen handiko pertsonaiak ere hortik jo zuten".

Gaur egungo turismoa

Munduan 8.000 milioi lagun bizi bagara, "1.100 milioi udatiarrak" garelako dio historialariak. Horregatik, hor kokatzen du, jasanga-

rritasunari begira, zaindu beharko genituzkeen neurriak: "Kontsumitzaileak gara gu, baina derrigortuta gaude bizi-kalitatea eta bizimodua partekatzera. Sistemak sosteniblea behar du izan".

Donostiako datuak eman dizkigu, aurrekoaren adibidetzat proposatuz. "Gipuzkoako hiriburuan 15.000 lagun bizi dira turismoaren bueltako lanetan. Horrek bertako Barne Produkzio Gordinaren %13 izatera eramaten du. Ikusten denez, kontuan hartu beharreko datua da. Baina, aldi berean, badira beste batzuk: San Sebastian eguneko bezpera batean, Alde Zaharrean kokatuta dauden 13 kamarek 299.000 mila lagun kontatu zituzten. Horrela ulertu daiteke, bertan bizi direnek jasan behar dutenarekin batera, Grosen bizi direnek ere hura parke tematikoa baliatzen hartzea, Cabarcenotzat jotzea".

Orain dela bost urte DV-k egindako proba ere gogora ekarri digu Jesus Gutierrezek. "2019an Alde Zaharreko zazpi tabernetan izan ziren eta, kontsumizio berdina eginenez, ikusi zuten euretako bostetan atzerritarrei garestiago kobratu zieten bertakoei baino. Zergatia galdetu zientean, gainera, tabernariak modu berezian

arrazoitu zuten neurria: "Ez diegu gehiago kobratu; donostiarrei merkeago egiten diegu". Dena dela, ez da gaur eguneko kontua bakarrik, Leon Trotskik berak ere, Donostian izan zen batean, argi esan zuelako: "Hiri-balneario honetatik izurritetik bezala ihes egin behar da".

Konponketa zaila du honek

Aipatutako arazoari Jesusen ez dio konponketa errazik ikusten: "Hemengo turismoaren eta kanpokoaren artean ere badago desorekarik. Bierronkei erantzun beharko genielako uste dut: alde batetik, eskaintza zabaldu beharko genuke udatik kanpo; eta, bestetik, deszentralizazioa bilatu beharko genuke. Jendeak askotan itsu jokutzen du, erreferentzia jakin batzuei jarraituz... Pin, pan, pun. Besterik begiratu gabe. Baselizen Ibilbidea dela, Gaztarena dela...".

Gaur egun Euskal Autonomi Erkidegoan 2.400 pisu turistiko daukela dio eibartarrak. Eta Debara bueltatuta, herriak gehiagorako ez duela ematen dio: "Pisu gehiago egiteko bidea agortuta dago, mendirantz egin dira etxe batzuk, baina ibaitik urrun; luzera ezin da gehiagorik egin. Ibitik beste al-



Altzolako balnearioa XX. mendearen hasieran. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO "GURE GIPUZKOA".

>>> Munduan 8.000 milioi lagun bizi bagara, 1.100 milioi udatiarrak gara; Donostian 15.000 lagun bizi dira turismotik



Miramar Hotela eta Debako hondartza 60. hamarkadan. ARABAKO FORU ALDUNDIKO ARTXIBOA.

dera pasatuta, hori beste kontua da, Mutrikuko lurra direlako; eta Hondarbeltz eta inguruak Mutrikutik urruti daude, lagata". Bestalde, Deban berriro zabalduko den hotelaren bueltan ere baditu zalantzak: "Ea zortea duten, baina neguan zelan egin aurrera, hor ikusten dut arazo handiena".

Etorkizunean zer, hor dago kokka

Pandemiaren ondoren jendea bidaiatzeko irrikitan dagoela nabaria da, edonora joateko gosez. Eta edozein belaunaldiko jendearen artean zabaldu da, gainera, aje hori. Hori prezioak ere, jaitsi beharrean, igo egin direnean. "EAEn bertan, gau bateko batz-beste prezioa 137 eurotan dago", diosku berak.

Hala ere, sasoi batean pentsaezina zena ematen da gaur: "20-21 urteko gazteak Afrikara doaz, horrelakorik ezin genuen egin aurreko belaunaldikook". Baina jubilatuek ere bide beretik jotzen dute: "Orain,

>>> Euskal Autonomi Erkidegoan 2.400 pisu turistiko daude; bestalde, gau bateko batz-beste prezioa 137 eurotan dago

Imerso dela edo ez dela, arraroa da urtean hiru-lau bidaiara egiten ez duen erretiratua". Lehen arlo horretan ematen zen desorekarik gaur egun ez dagoelako, askoz gehiago bidaiatzen baita neguan ere. "Baliabide teknologikoez, gainera, asko gutxitu dituzte sortu zitezkeen arazoak, aldi berean distantziak hurbil-

duz. Orain joan aurretik badakigu nora goazen. Hori bai, zoritxarrez nortasuna galtzen joan gara: Burger King, Zara eta antzekoekin egiten dugu topo leku guztietan".

Jesusek ez du, ez, milagrorik espero azken aldian hiri turistikoentan hartzen diharduten neurri berezietan. "Pisu turistikoen inguruan ezarri nahi dituzten neurriak, tasa turistikoen ezarpenak... Venezian ahalegindu dira, baina konponketa gutxi. Kanariar irletan, Malagan... nola mugatu? Ostalaritzan eta bidaiara agentzietan hainbeste jende lanean diharduenean, oso zaila da arazo horri benetan heltzea". Gairara egokitzea tokatzen zaigula dio.

Amaitzeko, honakoa ere aitortzen digu historialariak: "Gure aurrekoek ere jakin izan zutelako euren garaietara egokitzen. Euskaldunok oso itxiak garen ospea badugu ere, gure arbasoen sustraietan nabigatzaileak eta bizizaleak apaizak eta monjak baino gehiago izan ziren".

“Eibar Rugby Taldearen aurka jokatu nuenean sentimendu kontrajarriak izan nituen”

LUCIA MOYA • Errugbilaria



Orain dela bi denboraldi, bere bizitzako taldea laga eta abentura berriari ekin zion Lucia Moyak. Eibar Rugby Taldeetik Sant Cugatera pasa zen eta errugbia beste ikuspegi batetik bizitzen dihardu. Aurtan, gainera, titulu bat ospatzeko aukera izan du, talde kataluniarrak Erreginarenean Kopa irabazi baitu.

Eibar Rugby Taldeko (ERT) ikurretako bat izan da hainbat urtetan zehar eta Club Rugby Sant Cugat taldean protagonismoa dihardu izaten Lucia Moyak. Aurreko denboraldia ezin hobeto amaitu ondoren, atsedenez gozatzen dihardu errugbilari eibartarrak Bartzelona inguruan eta abuztuan hasiko dira hurrengo denboraldia prestatzen.

Erreginarenean Kopa irabazi zenuten, Ligako finalurrekoak jokatu zenituzten... Nolako denboraldia izan da Sant Cugatentzat?

Oso denboraldi ona izan da guretzat. Denboraldi hasieran gure helburua mailari eustea zen eta uste baino hobeto irten zaizkigu gauzak. Beraz, horregatik oso pozik geunden eta, orain, Erreginarenean Kopa irabazita, demaseko zoriona dugu.

Beraz, ez zenuten horrelakorik espero?

Egia da Sant Cugat beti ibili dela hobeto zaspiko errugbian hamabostekoan baino (Erreginarenean Kopa zaspiko errugbian jokatzen da), baina ez genuen espero horrelako titulurik irabaztea. Erreginarenean Kopako hiru faseetan hiru neurketa bakarrik galdu ditugu.

Alde nabarmena dago zaspiko errugbiaren eta hamabostekoaren artean?

Nire ustez, bai. Zaspikoan joko askoz ere biziagoa da eta, trebezia garrantzitsua bada ere, fisikoa berebizikoa da. Taldean jende azkarra baduzu, askoz hobeto.

Erreginarenean Kopa irabazi zenuten, Zuretzat berezia izan zen?

Bai. Arraroa izan zen, Eibarren aurka jokatu guretzat finala. Justuan irabazi genuen. Sentimendu kontrajarriak izan nituen, baina azken neurrian Sant Cugat jokatzen dut eta nire taldeak irabaztea nahi nuen.

Ez zen ERT-ren aurka jokatzen zenuen lehen aldia, ezta?

Ez. Sant Cugatera joan nintzenez, kasualitatez, lehen partidua Eibarren aurka jokatu nuen. Hori bai izan zen gogorra. Zelaian lagunak aurkari direla ikustea arraroa egin zitzaidan.

Nola kudeatu zenuen egoera hura?

Zelaian dena ematen duzu, berdin-berdin. Amaiur Mayorekin bai pasatu zitzaidan gauza bitxia. Beti jokatu izan dut berarekin eta errugbian beti izan da erreferentea niretzat. Aurkari bezala eduki nuenean konturatu nintzen beraren aurka ez nintzela topera joaten, baina era berean uste dut berari ere berdin gertatzen zitzaiola. Bestela, zelaira sartzean eta partidua hastean, aurrean zein duzun ahazten duzu.



Errugbi partiduetan jokoa nolakoa izango den zehazteko ardura izaten du Lucia Moyak. D. TORRES

Nola iritsi zitaizun Sant Cugatena jokatzeko aukera?

Orain dela hiru urte Sant Cugatena presidentea Erreginaren Kopa ikusten egon zen, eta talde horretan Idoia Jauregi eibarrak jokatzeko zuten. Eibartik irtetzeko eta beste talde batean jokatzeko gogoan nuen, eta kontaktuen bitartez presidentearekin egon ahal izan nintzen. Esan zidan Bartzelonara joanez gero eurekin jokatzeko aukera izango nuela eta horrela egin nuen.

Joateko gogoan izan arren, zer sentitu zenuen zure bizitzako talde lagatzerakoan?

11 urte neramatzan Eibarren jokatzeko eta talde aldatzeko gogoan nuen. Pena eman zidan talde lagatzeak, baina Sant Cugatena ere lehen mailako taldea zen eta beste gauza batzuk ezagutzeko aukera ematen zidala pentsatu nuen. Eibarko errugbia bakarrik ezagutzen nuen, ez nuen beste ingurunerik ezagutzen.

Nola bizi da errugbia Sant Cugatena?

Eibarrekin alderatuz, oso ezberdin. Sant Cugatena kanpoko jokalarik asko dago, gutxi dira Bartzelonakoak edo Sant Cugatena. Errugbia, jokari dagokionez, antzekoa da, baina arlo sozialari begiratuz gero, oso ezberdina.

“Pena eman zidan ERT lagatzeak, baina Sant Cugatena ere lehen mailako taldea zen eta beste gauza batzuk ezagutzeko aukera ematen zidala pentsatu nuen”

Klubari dagokionez, aldeak daude ERT-ren eta Sant Cugatena artean?

Sant Cugatena egitura handiagoa du. Zentzu horretan, Eibarren klubeko jokalarik guztiak ezagutzen dituzu; Sant Cugatena ez, askoz ere jokalarik gehiago gaudelako. Zuzenaz nolakoa dihardu izaten Sant Cugatena esperientzia?

Kirolari moduan, etengabe ikasteko aukera ematen dit. Jende berria ezagutzeko aukera izan dut, jokalariek zein entrenatzaileak, eta denengandik ikasten dut. Bestalde, maila pertsonalean, beste bizimodu bat ezagutzeko aukera eduki dut.

Etorkizunera begira, zein da zure asmoa?

Sant Cugatzen gelditzea da nire asmoa, oraindik ez dut itzultzeko asmorik. Eurek nahi badute behintzat. Izan ere, gero eta maila handiagoa dago taldearen barruan. Orduan, A edo B taldean izan, hemen jokatzea nahiko nuke.

Uztartze-erdilari postuan jokatzeko duzu. Partiduetan zein izaten da zure zeregina?

Jokoa banatzeaz arduratu ohi naiz. Hau da, taldeak jokatzeko sistema bat du eta 9 zenbakia duenak, uztartze-erdilariak, baloia beste taldekideei banatzen die. Jokoa agintzen dugu, moduren batean esatearren. Gure postuan garrantzitsuagoa da burua arlo fisiko baina. 9 eta 10 zenbakidunek erabakitzen dugu jokoa nondik nora ibiliko den.

ERT-k maila galdu du aurten. Nola bizi izan duzu egoera hori?

ERT-n jokatu dugun hiru jokalarik gaude Sant Cugatzen eta taldea gertutik jarraitu dugu, noski. Jaitsierak pena handia eman digu. Dena dela, gaur egun Ohorezko B Mailan demaseko maila dago. Orain dela lau-bost urte, mailaz igo ginenean, taldeen artean alde nabarmena zegoen mailaren aldetik, baina gaur egun dena orekatu da eta taldeek gero eta maila gehiago dute. Beraz, Ohorezko B Mailan aritzeak ere meritua handia du.

Taldearen maila asko igo da azken urteotan?

Bai, asko. Orain asko lehiatu behar da emaitza positiboak lortzeko. Finalak oso parekatuta egon dira eta baita jaitsierako kanporaketak ere. Gauzak asko berdindu dira.

11 urtez ibili zinen ERT-n, taldearen bilakaera lehen pertsonan bizi izan zenuen eta gorenera heldu zinen. Nola bizi izan zenuen prozesu hori guztia?

Hasieran, askogatik galtzen genuen (barreak), baina gero oso prozesu azkarra bizi izan genuen eta taldeak asko hobetu zuen. Zazpi neska ginen, Cristina Guntin entrenatzailea etorri zen eta hortik aurrera gora egin genuen. Lehenik, Euskadiko Liga irabazi genuen. Getxoren aurka irabazi genuen, etsai zuzen baten aurka, eta horrek mugarrria ezarri zuen. Ohorezko B Maila-



“Gaur egun dena orekatu da eta taldeek gero eta maila gehiago dute. Orain asko lehiatu behar da emaitza positiboak lortzeko”

ra igo ginen eta fitxaketak egin genituen. Beste talde batzuek ez zituzten egin eta, pare bat talde kenduta, besteak maila gutxiagokoak ziren. Urte hura ondo egon zen, baina dena irabazi genuen eta horrek grazia kendu zion. Gainera, pandemia urtea izan zen eta ez genuen finala jokatu ere egin. Etxean sartuta iritsi ginen Ohorezko Mailara.

Sant Cugatzen gustora zaudela aipatu duzu, baina noizbait ERT-n berriz jokatzeko aukera zabalik dago?

Eibarrera itzultzen banaiz, errugbian jokatzeko gustatuko litzaidake. Eta ordurako errugbian jokatzeko ez badut, ERT-ri edozertan laguntzeko prest egongo nintzateke.



BAZKIDE zertarako?

Era, gai eta formatu ezberdinetako hitzaldi, mahai-inguru, tailer eta ikuskizunak antolatzeko.



Illunabarrian

Bospasei ekitaldi antolatzen ditugu urtean zehar. Euskaldunei zuzendutako aisialdi, formazio eta kultur eskaintza ematea da helburua eta, aldi berean, euskaldunen arteko harreman-sarea osatzea, erabilera zabaldu dadin.

zarelako **g**ara

Egin zaitez bazkide!



Odei Jainaga izan zen, orain Eurokopa irabazi duen Mikel Oyarzabalekin batera, orain dela hiru urte Tokion jokaturako azken Joko Olinpikoetan.

Pariseko Joko Olinpikoetan ez da orain arteko Eibarko seikotea handituko

Momentuz sei dira orain arte jokaturako Joko Olinpikoetan parte hartu duten eibartarrak, eta badi-rudi kopuru horrekin jarraituko dugula Pariseko Jokoak lehiatu ondoren ere, orain arte bertan izateko kirol-modalitateetako zerrendetan ez delako eibartarrik ikusten. Uztailaren 26an hasi eta abuztuaren 11n amaituko dira aurten gertu izango ditugun kirol lehiaketa horiek.

Aipaturako seikoteari Ciriaco Errasti futbolariak eman zion hasiera, Amsterdamen 1928an jokaturako edizioan. Ondoren, 60 urtez ez zen eibartarrik egon parte horretan jokaturako Jokoetan. Harik eta 1988an Seulgo Jokoak iritsi arte, hor hartu baitzuen parte gure herrian jaio eta Gasteizen bizi den Maite Zuñiga atletak. Bera, gainera, hurrengo bi edizioetan ere izan zen: 1992ko Bartzelonakoan eta 1996ko Atlantakoan. Esandako bi horietan beste eibartar bat izan

zuen lagun, Aitor Etxaburu eskubaloilaria. Euren ondoren, beste 20 urte itxaron behar izan genion hurrengo eibartarrari, 2016an Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetan parte hartu zuen Markel Alberdi igerilariari. Eta, azkenik, Parisko honen aurrekoan beste bi ordezkari izan genituen: Mikel Oyarzabal futbolaria eta Odei Jainaga atleta. Pandemia tartean zela, 2020ko Tokioko Joko horiek urtebete geroago egin ziren, 2021ean, eta hara min hartuta joan zen Jainaga ez da guztiz osatu orduan izan zuen lesiotik.

Beraz, orain arte sei kirolarik ordezkatu dute Eibar Joko Olinpikoetan: bi futbolari, beste bi atleta, eta eskubaloilaria eta igerilari bana izan dira bertan. Emakumezkoa, gainera, bakarra izanda ere, Zuñiga hiru ediziotan izan dugu parte hartzen; eta Etxaburu eskubaloilariak ere errepikatu izan du, bitan parte hartuz.

Eibar Igerixanekoak jo eta su uretan sartu-irtenak egiten

Sasoi betean dihardute Eibar Igerixanekoak azken asteotan, eta aurreko asteburuan ere bertako igerilariak izan zuten non "luzitu". Horrela, zapatuan Tolosako Usabal kiroldegian jokaturako 51. San Juan Sarian, Eibar Igerixaneko zazpikotea izan zen parte hartzen: bost neska (Nora Guinea, Paula Calvo, Itsaso Castrillo, Jone Avelaneda eta Alba Sierra) eta bi mutil (Asier Gomez eta Jon Guinea). Calvo 400 libretan nagusitu zen, bigarren geratuz 100 libre eta 200 bizkarrean; Nora Guineak eta Asier Gomezek bigarren postua eskuratu zuten bizkar eta estilo erako 200

metroko probetan, hurrenez hurren; eta Itsaso Castrillo 100 eta 400 libretan hirugarren izan zen bezala, postu horretan amaitu zuen Alba Sierrak 100 brazako proban.


Domekan, bestalde, Legution jokaturako Santa Engracia zeharkaldian, Eibar Igerixanek bi laguneko ordezkartza izan zuen. Lasterketa bi kilometroko distantziakoa izan zen eta irabaztetik gertu ibili zen Asier Gomez, Eibarko bietatik gazteena, 26 minutu eta 42 segundo denborarekin bigarren postuan sailkatzeko. Horrelako trabesietan esperientzia luzea duen Gorka Areitioaurtena izan zuen lagun.



Areitioaurtena eta Gomez, Legution.

Jan Castellonek irabazi zuen afizionatuen Arrate Igoeraren edizio berezia

Eibarko Klub Deportiboaren men-deurrena ospatzeko, aurreko zapatuan jokatuako afizionatuen mailako lasterketan, Caja Rural-Alea taldeko txirrindulariak proba bereganatzeaz aparte, Lehendakari Txapelketako lidergoa eskuratu zuen. Torneo horretako proba berri bakarra da Eibarkoa, aurten barrik jokatu dena. Proba azkar joan zen hasieratik eta aurretik ihes egitea lortu zuen taldetxoak inoiz ez zuen abantaila nahikorik lortu, eta faboritoen tropelak Arrateko Igoera hasi aurretik jakin izan zuen



abenturazaleak harrapatzen. Malda horietan Jan Castellon izan zen indartsuena eta 24 segundoko aldea atera zion Finisher Kern Pharmako Nil Gimeneri. Euren atzetik sartu zen laukotea, minutu erdira, eta Gomur Cantabria Infnitako Sergio Trueba buru zuela.

Irabazleak 3 ordu, 17 minutu eta 40 segundo behar izan zituen helmugako marra zapaltzeko, orduko 41,585 kilometro eginez bataz beste. Abiatu ziren 164 txirrindularitik 142k osatu zuten 137 kilometroko ibilbidea eta hor izan ziren Eibar etxeko taldeko hamaikakotik 10 txirrindulari. Xabat Manso izan zen euretako onena (25. postuan, irabazlearengandik minutu eta erdira) eta atzetik sailkatu ziren, lasterketa bikaina eginez, Gorka Arruti (38. postuan, 2'38"ra), Mikel Irigoien (44. 3'31"ra). Mikel Goi-ketxea eta Iker Ugartemendia 60. eta 61. izan ziren, hurrenez hurren, 3:22:15eko denborarekin; Tasio Senperena eta Eneko Arozena 101. eta 102. izan ziren (3:26:00 euren denbora); Aritz Esnaola 108. izan zen (3:26:46); eta Telmo Senperena eta Ganix Ormazabal, 3:27:47 denborarekin, 127. eta 128. postuetan helmugaratu ziren.



Deporreko ordezkaria podiumean, ezkerretik hasita lehen.

Elene Arrazola azpitxapel dun izan zen Espainiako txapelketako 100 metrokoan

Malagako atletismo pistetan jokatuako 18 urtez azpikoen Espainiako txapelketetan, Elene Arrazolak ondo merezitako zilarrezko domina eskuratu zuen 100 metro lauetako proban. Bigarren postua eman zion markak (11.82 segundo), gainera, Eslovakiako Banská Bystrican jokatuako diren 18 urtez azpiko Europako txapelketarako Espainiako selekzioaren deia jasotzea ekarri dio. Bestalde, 23 urtez azpikoen mailako Aire Zabaleko Espainiako txapelketa jokatu zen aurreko asteburuan Burgosen, Purificacion Santamarta atletismo pistetan, eta han Garoa Magunazelaia 7. postuan sailkatu zen xabalina jaurtiketaren diziplinan, 38.17ko markarekin, denboraldiko marka onenetik oso gertu.

Urbateko infantil mistoek brontzea Vigon

Emitza arrakastatsua eskuratu du Urbat waterpoloko infantil mistoaren taldeak Vigoko Nazioareto Torneoan. Urbat IKE-k barixakuan hasi zuen torneoa Santiagori 9-8 irabaziz, partidua erdialdean 4-7 galtzen joan eta gero, eta egun berean 10-3 irabazi zion Vigo B-ri. Zapatuan, baina, Eibarko taldeak ezin izan zion Ferrolgo Marinari irabazi eta, behin kanporaketak amaituta, bigarren izan zen bere multzoan. Domekan, azkenik, beste multzoaren bigarrenaren aurka jokatu zuen, brontzezko domina jokoan zela, eta eibartarrak 6-3 nagusitu zitzaizen Portugaleteko Nauticari. Urbati irabazi zion Ferrolgo Marinak jantzi zuen azkenean txapela.



Mugikorrarekin eta sare sozialekin harreman osasuntsua izateko tailerra

Eibarko Udalak *Mugikorraren auzia* izenburuko formakuntza antolatu du gurasoentzat. Opor ostean izango dira saioak, irailaren 9an eta 12an, Coliseo antzokian, eta sare sozial eta pantailen arloan dibulgatzaile aditua den Telmo Lazkanok emango du tailerra, 18:00etatik 20:00etara. Aforoa dela eta, beharrezkoa da aurretik izena ematea, Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioa beteta (epea zabalik dago irailaren 5era arte).



Antzerki laborategia ipiniko da martxan kurtso berrian

Eibarko Udalak *Antzerki laborategia* tailerra antolatu du beste behin, arte eszenikoen lanketa eta aukera herritarrei eskaintzeko asmoz. Haur, nerabe eta helduentzako taldeak osatuko dira, eta tailerrak Errebal Plazan izango dira, eraikinaren bigarren solairuan (ele bitan). Klaseak, berriz, Mar-mar antzerki taldekoek emango dituzte. Aurrematrikula egiteko epea abuztuaren 26an zabaldu eta irailaren 16an itxiko da. Informazio zehatza ikusteko, zein izena emateko, Udalaren webgunera jo beharko da.



Zorionak ludotekako umeak ...eta kitto!-n egon dira

Zorionak ludotekak eta Nekane Pastor akademiak antolatzen duten *Summer Camp* ingelesezko udalekuetako haurrak ...eta kitto! Euskara Elkarteak bertatik bertara ezagutzera etorri ziren. Udako opor tarte honetako egunak Urkizuko Zorionak ludotekan pasatzen dituzten haur eta gaztetxoak etorri ziren bulegora, elkarteak eta bere jarduna bertatik bertara ezagutzera. ...eta kitto! astekaria eta Txikitto! hilabetekaria nola egiten diren, euskararen alde egiten dugun lana, eta beste hamaika kontu adi-adi entzun zituzten. Opariak eman eta jaso ondoren, pozarren irten zen argazkiko talde jator hau elkartetik.



Euskelga taldearen kontzertua bihar Guridin

Bihar 20:00etan kontzertua emango du Euskelga talde eibartarrak, Guridi taberna kanpoan. Folk abesti ezagunak eta beste batzuen moldaketak joko dituzte.



Bertsolari onenekin afaria egingo da Arrate bezperan

Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Andoni Egaña eta Nerea Ibarzabal bertsolariek osatuko dute aurtengo Arrateko Bertso Afariko kartela. Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara arituko dira irailaren 7rako ...eta kitto! Euskara Elkartek Tiro Pitxonen antolatu duen saioan. Euskara elkarteak bazkideentzat sarre-
rak salgai daude, 38 eurotan, eta elkartearen egoitzan bertan erosi ahal izango dira (Urkizu II, solairuartera), astelehenera arte. Eguaztenetik aurrera, berriz, ohiko lekuetan (Kultun, Guridin eta Tiro Pitxonen) egongo dira salgai, 40 eurotan.



Amaia Tellaetxek erakusketa zabalduko du irailean

Udako oporren ostean, irailaren 6tik 15era, Amaia Tellaetxe artista eibartarraren erakusketa hartuko du Untzaga gizarte zentroak. Bertan artistaren pinturak, marrazkiak eta bozelduak ikusi ahaliko dira, astelehenetik barixakura, 19:15etik 21:00era; eta zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.



UEUren ikastaroak egiten dituzten eibartarrentzat dirulaguntza deialdi berria

UEUk antolatzen dituen ikastaroak egin nahi dituzten eibartarrei zuzendutako dirulaguntza deialdia argitaratu du Eibarko Udalak. Dirulaguntzak 2023ko irailaren 1etik 2024ko uztailaren 31ra arte UEUn ikastaroak egin dituzten eibartarrentzat dira, eta eskaera egiteko epea zabalik egongo da irailaren 30era arte. Baldintza guztiak betetzen dituztenek matrikula kostoaren %50a jasoko dute bueltan. Eskaerak online egin behar dira, udalaren webgunearen bitartez.



Afrikako emakumeen literaturari buruzko tailerra

Andretxearen udazkeneko programazioaren barruan egingo den *Munduko emakumeen literatura* tailer-
rean Afrikako hainbat egileren berri emango dute. Tailerra doan da, eta aurrematrikulak irailaren 1etik 25era bitartean egin ahal izango dira, Udalaren eta Andretxearen webguneetan eskuragarri egongo den formulario bat betez.




Toribio Etxebarriaren begiradapean. SILBIAHERNANDEZ

Jorge Arizmendiarieta Urizar

2024/07/17

ISABELEN EUKI-KO LANKIDEOK beti izango zaitugu gogoan.



Karmentxu Altuna Garmendia

2024/07/12

"Betirako gure bihotzetan. Maite zaitugu"

ESKERRIK ASKO une latz hauetan gurekin egon zareten lagun eta familiako guztioi.

- ETXEKOAK -



Iñaki Isasmendi Irigoien

3. URTEURRENA (2021/07/27)

"Beti izango zara gure bihotzetan"

- ZURE FAMILIA -

Oscar San Julian Gutierrez

5. URTEURRENA
2019/07/29

"Gure bihotzetan eta pentsamenduetan jarraitzen duzu"

- ZURE FAMILIA -

Bere aldeko **MEZA** egingo da hilaren 28an, 12:00etan, Karmelitetan.



Karmentxu maitea!

Egunero botatzen zaitut faltan, kirioak dantzan ditudala, batez ere zerbitzu zailenetan. Nire konplizea izan zara, nire laguna; nire antsietate-uneak jasan izan dituena. Ni nagusia zuretzat, zu niretzat lagunmina. Marea ona hartzea opa dizut; eta nagusiarekin aurkitzen bazara, ez eztabaidatu.



KRABELINGO TALDE GUZTIAREN ETA INOIZ AHAZTUKO EZ ZAITUEN ZURE "JEFA"REN PARTEZ

●●●
FUNEUSKADI
Funeraria

●●●
FUNERARIA MUGICA
Funeraria

●●●
TANATORIO EIBAR

●●●
FUNERARIA MUGICA ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Osaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Kuxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdesolana, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		4						9
7							2	
				6	2	5		8
		3	8					6
4								2
	8							
8		1	9	4				
		7						6
2							1	

P	S	I	R	C	C	R	O	C
P	R	E	S	T	R	A	T	O
S	O	L	U	T	I	O	N	A
S	O	L	U	T	I	O	N	A
S	O	L	U	T	I	O	N	A
S	O	L	U	T	I	O	N	A
S	O	L	U	T	I	O	N	A
S	O	L	U	T	I	O	N	A
S	O	L	U	T	I	O	N	A
S	O	L	U	T	I	O	N	A

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

A	L	R	T	I	C	E	Z	A
P	O	L	I	N	O	S	E	A
P	O	B	E	N	E	S	T	O
C	O	N	A	R	E	S	I	L
A	T	L	I	N	O	S	E	A
R	I	T	O	C	O	R	R	A
L	O	R	E	G	E	P	E	R
L	O	R	E	G	E	P	E	R
L	O	R	E	G	E	P	E	R
L	O	R	E	G	E	P	E	R

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			4	2	3			
	3	7		8				2
			3				9	1
	4							
3	8					5		9
							6	
4	7				3			
8			2			1	5	
		2	9	4				



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			8	6		3		4
			2			9		
			3		4		7	6
						4		5
7	8	6				2	1	3
5		9						
9	2		5		8			
		3			1			
8		7		2	3			

8	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9	0
2	3	4	5	6	7	8	9	0	1
3	4	5	6	7	8	9	0	1	2
4	5	6	7	8	9	0	1	2	3
5	6	7	8	9	0	1	2	3	4
6	7	8	9	0	1	2	3	4	5
7	8	9	0	1	2	3	4	5	6
8	9	0	1	2	3	4	5	6	7
9	0	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	7		5		3		4	
					9	6		
		6					1	
3		5						
		9	4		1	3		
						2		6
	9				4			
		1	2					
4		7		8			3	

S
U
D
O
K
U

soluzioa

8	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9	0
2	3	4	5	6	7	8	9	0	1
3	4	5	6	7	8	9	0	1	2
4	5	6	7	8	9	0	1	2	3
5	6	7	8	9	0	1	2	3	4
6	7	8	9	0	1	2	3	4	5
7	8	9	0	1	2	3	4	5	6
8	9	0	1	2	3	4	5	6	7
9	0	1	2	3	4	5	6	7	8

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **20an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **21ean:** 17:00, 20:00
- **22an:** 19:30

"Fuera de temporada"

DRAMA



2023/Frantzia/115'
Zuzendaria: Stéphane Brizé
Aktoreak: Guillaume Canet, Alba Rohrwacher, Sharif Aoudora
Aspaldiko erlazioa berreskuratu

2 ARETOA

- **20an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **21ean:** 17:00, 20:00
- **22an:** 19:30

"Fly Me to the Moon"

AKZIOA



2024/AEB/132'
Zuzendaria: Greg Berlanti
Aktoreak: Scarlett Johansson, Channi Tatum, Woody Harrelson
Komedia erromantikoa

ANTZOKIA

- **20an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **21ean:** 17:00, 20:00
- **22an:** 19:30

"Padre no hay más que uno"

KOMEDIA



2024/Espainia/XXX'
Zuzendaria: Santiago Segura
Aktoreak: Santiago Segura, Toni Acosta, Martina D'Antiochia
Sekuela / Zine familiarra

UDAKO ZINEA UNTZAGA

ABUZTUAK 1 EGUENA

- **22:00**

"Boo Kwai eta museoa"

ANIMAZIOA



2022/Txina/101'
Zuzendaria: Wang Yunfei
Abenturak/Unibertso paraleloa eraikiz

ABUZTUAK 8 EGUENA

- **22:00**

"Barbie"

KOMEDIA



2022/AEB/105'
Zuzendaria: Greta Gerwig
Aktoreak: Margot Robbie, Ryan Gosling, America Ferrera
Satira/Feminismoa

ABUZTUAK 22 EGUENA

- **22:00**

"Robot Dreams"

ANIMAZIOA



2023/Espainia/102'
Zuzendaria: Pablo Berger
Robotak/Adiskidetzeta/Animaliak

ABUZTUAK 29 EGUENA

- **22:00**

"El vasco"

KOMEDIA



2022/EAE/100'
Zuzendaria: Javi Elortegi
Aktoreak: Joseba Usabiaga, Itziar Aizpuru, Eduardo Blanco
Argentinako euskaldunak

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **AIURI!**
3 urte mando
egingo dozuz bixar,
hillak 20. Malen,
amatxu eta aita-xo-
ren partez, .



Zorionak, **KOLDO!!**
Hillaren 24an
4 urte beteko
dozuz eta. Asko
maite zaittugu!



Zorionak, **MARINA!**
Hillaren 25ian
8 urte beteko
dozuz eta!!! Patxo
haundi bat etxeko
guztien eta, batez
be, Anton eta
Sabinaren partez!!!



Zorionak, **KOLDO,**
hillaren 27xan
9 urte beteko do-
zuz eta. Musu bat
famelixa guztiaren
eta, batez be,
Jonen partez. Ondo
ondo ospatu!



Zorionak, **MIKEL,**
bixar 5 urte egingo
dozuz eta! Asko
maite zaittugu.
Famelixaren
partez.



Zorionak, **EKI!**
Abuztuaren 4an
4urte beteko dozuz
eta!!! Patxo potolo
eta besarkada
haundi bat etxe-
kuen eta, batez be,
Marenen partez!!



Zorionak, **LEA,**
abuztuaren 6xan
4 urte beteko
dozuz eta. Patxo
haundixa etxekuen
eta, batez be, zure
ahizpa Jareren
partez.



Zorionak, **JARE,**
astelehenian 9 urte
bete zenduazen
eta. Zein ondo
pasatu genduan!
Musu haundi bat
etxekuen eta, batez
be, Learen partez.



Zorionak, **DANEL,**
abuztuaren 6xan
6 urte beteko
dozuz eta. Musu
haundi bat
etxekuen partez.



Zorionak, **MARA,**
atzo 3 urte bete
zenduazen eta.
Musu haundi bat
etxeko guztien
partez.



Zorionak, **MARKEL,**
uztaillaren 24an
10 urte beteko
dozuz eta. Musu
haundi bat etxeko
guztien partez.



Zorionak, **UNAX** (uztaillaren
27xan 11 urte) eta **LAIA**
(abuztuaren 1ian 7 urte).
Domeka hontan ospatuko
doguz basarrixan. Famelixa
guztiaren partez.



Zorionak, **IZAR** eta **MAITE!**
Bixar, zapatua, 6 urte beteko
dozuez eta! Oso ondo ospatu!
Patxo haundi bana famelixa
osuaren partez.



Zorionak, **JARE** eta **MALEN!!** 12 urte!!
Gozatu udaz eta jarraitu irribarre polit
horrekin. Milla patxo, bikote!
Maite zaittuegu.



Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Vielhan (Ba-queira). 75m². 2 logela, 2 komun eta egongela-jangela-sukaldea. Igogailua eta garagea. Sauna eta igerilekua. Jolas-guneak (futbolina, billarra eta ping pong-a). Ekain, uztail edo abuztu osoa: 1.500 euro. 688840712.
- Emakume batek pisua hartuko luke alokairuan. 2-3 logelakoa. 664823992.
- Emakume batek pisua hartuko luke errentan. 2/3 logelakoa. 607841549.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da abuztu arratsaldetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 688691739.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). 602490595.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 640771147.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko goizez. 642986129.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) etxean zein ospitalean eta etxeko garbiketarako egiteko. Erreferentziak. 667060292.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 672913892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 631279124.
- Katuak zaintzen ditut uda honetan, berdin dio egunak, asteak... 663520383.

- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko: etxeak, lokalak, tabernak... 674810717.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632708954.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Externa. 643708616.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 608401590.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643711687.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa. 613304239.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 607841549.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pasiazteko goizez. 679912841.

4.2. Langile bila

- Emakume euskalduna eta arduratsua behar da nagusia zaintzeko, Soraluzen. Esperientzia baloratuko da. Astelehenetik ostiralera, jardunaldi osoa. 635441920.
- Emakume euskalduna eta arduratsua behar da nagusia zaintzeko, Soraluzen. Asteburuetarako, ordutegia adosteko. 635441920.
- Kamarera/o behar da abuztu eta irailerako. 627778980.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Kitarra, baxu elektrikoa, konboak, sormen eta edizio musikala (home estudio) eta armonia modernoaren klaseak ematen dira. maria-nohurtadobravo@gmail.com. 652217737. Mariano (Musikene).
- Neska eskaintzen da ingelesezko klase partikularrak emateko. 688728655.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.3. Galdu/Aurkitu

- Urkizu 7 zenbakiko dorrearen inguruan pultsera bat aurkitu zen astelehenean. Udaltzaingoan dago.

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



Maialen Lujanbio

ARRATEKO
**BERTSO
AFARIA**



**IRAILAK 7
ZAPATUA**

TIRO PITXON
JATETXEAN
21:00etan



Iker Zubeldia



Andoni Egaña



Nerea Ibarzabal

Sarrerak salgai BAZKIDEENTZAT uztailaren 12tik 22ra ...eta kitto!-n (38€)
Uztailaren 24tik aurrera Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonen (40€)



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontzian, Implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Madrigo Unibertsitate Konglutentzia.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.


Abuztuan ere ZABALIK

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com